



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2020

GOGORA

1. Memoria historikoa Udalak 2020 2
2. Dokumentalak egitea eta liburuak argitaratzea 2020 4
3. Memoria historikoa elkarteak eta fundazioak 2020 5



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Memoria historikoa Udalak 2020

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko apirilaren 22koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek eta gainerako toki-erakundeek memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko dirulaguntzak deitzen dituen 2020. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/06/2002147e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/10/2004230e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-lerro honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek Memoria Historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko, Memoriaren Ibilbideak eratzeko eta sinbologia frankista kentzeko diruz laguntzea.

Zehazki, laguntzek honako jardun hauek sustatuko dituzte:

- Tokian tokiko ikerketa-jardunak, gerra zibileko eta diktadurako errepresioari, erbesteari eta balio demokratikoen egoera eta errealtateari lotutako jazoerak berreraiki eta prozesuak dokumentatzen dituztenak.
- Oroimen-ospakizun edo omenaldiak, errepresioaren, erresistentziaren eta gizarte demokratikoa eraiki duten pertsonen eta jazoeren ingurukoak.
- Zabalkunde-jardunak: jardunaldiak, mintegiak eta aldi baterako erakusketak, ikus- entzunezko produktuak eta ikerlanen argitalpenak.
- Altxamendu militarra, gerra zibila eta diktadurako errepresioa, orotara edo norbanakoen bidez, goren dituzten armarriak, intsigniak, plakak, bustoak edo omentzeko diren beste objektu edo aipamenak kentzeko jardunak.

Guztira 137.500 euro bideratuko dira laguntza horietara, eta proiektu bakoitzak gehienez 10.000 euroko laguntza izango du.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundutako proiektuak: 37.

Diruz lagundutako jarduera gehienak ikerketarako eta hedapenerako izan dira. Gainera, 9 memoria-ibilbide, 2 kasutan sinbologia frankista kentzea eta 3 omenaldi-ekitaldi finantzatu dira.



Deialdira bideratutako guztizko zenbatekoa esleitu zen: 137.500,00 €.

2020an bizi izandako egoera soziosanitarioak aurreikusitako zenbait jarduketa gauzatzea zaildu du, eta uko egiteak eta ez-betetzeak ere gertatu dira, baina oraindik ezin ditugu zehatz-mehatz kuantifikatu, ez baitugu justifikazioen izapidetzea amaitu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntza kopurua	30	37



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Dokumentalak egitea eta liburuak argitaratzea 2020

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko apirilaren 22koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez dirulaguntza-deialdia egiten baita 2020. urtean memoria demokratikoa berreskuratzeari buruzko liburuak argitaratzeko eta dokumentalak egiteko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/06/2002146e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/10/2004049e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gogora Institutuak diruz laguntzen du liburu berriak argitaratzea eta Euskadiko memoria demokratikoa berreskuratzeiko ikus-entzunezko ekoizpenak egitea, Gerra Zibiletik gaur egun arte, memoriari buruzko dokumentu- eta ikus-entzunezko funts bat sustatzeko. Lanak aurtengo abenduaren 31rako amaituta egon behar dute, eta haien gaiak memoria historikoaren eta oraintsuko memoriaren egia berreskuratzearekin eta argitzearekin lotuta egongo dira, demokraziaren eta giza eskubideen defentsaren ikuspegitik, eta haren urraketa salatzearekin. Deialdiak 75.000 euro ditu, eta proiektu bakoitzak 10.000 euroko laguntza izango du gehienez ikus-entzunezkoen kasuan, eta 5.000 eurokoa liburuen kasuan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundutako proiektuak: 12; 6 dokumental eta 6 liburu.

Deialdira bideratutako guztizko zenbatekoa esleitu zen: 73.482,62 euro. Hala ere, esleipendunetako hiruk dirulaguntzari bueltatu dute, aurreikusi zutelako ezin izango zuela lana garaiz amaitu, eta jasotako zenbatekoa itzuli zion Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiar.

Eragin sozial posibleari dagokionez, bereziki baloratu ziren orain arte jorratu ez diren gai berriak edo gutxiago jorratu diren proiektuak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Dirulaguntza kopurua	8	12



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Memoria historikoa elkarteak eta fundazioak 2020

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko apirilaren 15ekoa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez dirulaguntza-deialdia egiten baita 2020. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek edo fundazioek memoria historikoa berreskuratzeari buruzko proiektuak egin ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/06/2002145e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/10/2004357e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-deialdi honek 112.500,00 euro ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan 1936-1977 aldian memoria historikoa berreskuratu, ikertu eta ezagutarazteko proiektuak, zein, demokrazia eta askatasunaren alde Euskal Autonomia Erkidegoan izandako ekimenak diruz laguntzen dira.

Dirulaguntza eskatzeko aukera dute, estatutuetan, helburu modura, memoria historikoaren berreskurapena jasota duten elkarte eta fundazioak.

Zehazki, honako jarduerak sustatzeko bideratuko da laguntza:

- Gerra zibilaren eta diktaduraren errepresioarekin, erbestearekin, eta balio demokratikoen errealtate eta egoerarekin loturiko gertaerak eta prozesuak berritzera bideraturiko ikerketak egitea.
- Errepresioarekin, erresistentziarekin eta gizarte demokratikoa eraikitzearekin zerikusia duten pertsonak eta gertakizunak oroitzeko edo omentzeko jarduerak.
- Elkarteak antolatutako hedapen-jarduerak: jardunaldiak, mintegiak, aldi baterako erakusketak eta liburuxkak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diruz lagundutako proiektuak: 30. Diruz lagundutako jarduera gehienak ikerketara eta hedapenera bideratu dira. Gainera, 3 omenaldi-ekitaldi egin dira.

Deialdira bideratutako guztizko zenbatekoa esleitu zen: 112.500,00 €



Merezi du azpimarratzea, 2020an bizi izandako egoera sozio-sanitarioaren ondorioz, elkarte gehienek zailtasun handiak izan dituztela proiektuak gauzatzeko, eta, hasierako planei dagokienez, aldaketak eta egokitzapenak egin dira. Era berean, zenbait ez-betetze oso edo partzialak eta uko-egiteak gertatu dira, baina oraindik ezin ditugu zehatz-mehatz kuantifikatu, ez baitugu amaitu justifikazioen izapidetzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntza kopurua	20	30